

Azkeneko bolaran bazterretan sortu zaizkigun desekilibrio politikoaren artean gutxi atera digute Alemania-ko neonazismoak hainbat zalaparta. Hontan behintzat boz berdinak altxatu ziran Washington-en eta Mozku-n. Neonazismo edo nazismo zaharraren pizkunde soil dala hau NPD (Nationaldemokratische Partei Deutschlands) Alderdia da. Gutxien uste zanean eta Alemania behin betiko domatuta zegoela uste zanean, Land-etako (alegia, Herrialde federaletako) Parlamentotik alkiak irabazten hasi zitzaigun eskubialdeko Alderdi radikal hau.

NPD lehenengo aldiz Land-eko Parlamentora iritxi ta urrengo egunean alemanek Telebixtan ikusi ahal izan zituzten Amerika-tik Errusia arteko egunkari ta gobernariaren komentarioak. Kasi komentarista guztiak Hitler-en pizkundeaz mintzaten ziran. Bainan zer da NPD? Oraingoz handiago da atera duen arrabotsa, ta agian signifkazioa, berez ezer dana baino. Herriarteko eskandalo hau ikusirik, ba zan hasieran Alemania-n Partidu hau debekatzeko lege proiektu bat, bainan ba dirudi erretiratu egingo dala, NPD-ren martxa frenatu dalako batetik eta, bestetik, proiektuan dagon elezio sistemaren aldaketak berekasa desagertu eraziko lukealako. 1967-garrenaren azkenaldera eskubialdeko radikalismoa beheraka hasi da, eskerrekoa irabazten hasi dalarik.

NPD Alderdiak 28 milla lagun dauzka. Hoetatik 9.800 (beraz 35 %) poliziak fitxaturik daude. Ots, nazismoaren denporan NSDAP-koak izandako dira (ots: Alemania-ko langileen Alderdi nazionalsozialista - Hitler-en Partidua) edo gerraostean debekatu ziranetako beste eskubialdeko erakunderen batean egondakoak. NPD-ren Buruzagitza, berriz, jende **zikinaren** eskuetan dagoela esan leike: Buruzagitzatik 73% daude fitxatuta eta Herrialde federaletan Alderdiak dauzkan funtzionarioetatik 67% berebat fitxatuak dira. Ikus ditekeenez, ba, orain arte behintzat erremin eta nostalgiko zenbaiten **refugium peccatorum** dala dirudi NPD-k, besterik ezer baino gehiago.

Halare, ikaragarria da Alemania-n NPD-ren kontra egiten dan propaganda. Eta batek ez daki holako zerbait sanoa dan, herrien sikologiaz diotena egia bada behintzat. Nazismoaren pizkunde hau ez dala hain ustegabeko, esan leike, eta harrigarria hain berandu agertu izana dala, Alemania-ren joanaldi urbilenari begiratu ezker. Gerraostea ikusiaz, eta alemanek oraindik —demokraziara ohitu ta edukatu behar omen dutela ta— egiten dituzten zenbait gauza ere (Aliadu ziranen presiopean) herri bat edukatu ez baino humilatu ta erreboltatu eragin dezaketenak dira, noski. Behinolako nazien kontrako prozesuak

## KRONIKAK

Telebixtan ematen dira, ilabetero ta kasi amabostero ematen dira Telebixtan konzentrazioelaietako edo gerrako dokumentalak (hoek gutxitzen doaz, halare), rusoeak naiz polakoek Alemania naziri buruz egindako filmen serialak, judeguk mintzatzen dira Telebixtatik egin zitzaizkienak kontatzen, arabe-israeldarren gerra tximistakoan, adibidez, judeguk alemanen obligazio bezala eskatzen zuten laguntza, etc. Sorgin eize bat bihurtu da nazi ohien bilatzea (Amerikatik, Afrikatik ekarzen dituzte, amaika aldiz errugabe diran jendeak), Lübke Presidenteak naziekin ezer ote zuen garbitzeko sekulako eskandaloak izan dira alizkarietan eta Telebixtan agertu behar izan zuen Presidenteak periodixtekin eztabaidan, eta horrixe buruzko Parlamentoaren Biltzarrea telebixtatu egin zan oso osorik. Bai, guzti hori normala ta egokia izango da bainan, gehiegi! Gehiegi, batez ere, egunero inperialismo ta militarismo akusazioak entzuten egon behar duenarentzat.

Guzti honen frutuak kontradiktorioak izan dira. Gazteriak legendako personaje urrutian galdu bat bezala ikusten omen du Hitler. Bainan bestetik, soldadu guztien artean egindako inkesta batek salatu duenez, gazteotako 80%-k nahiago izango luke beste nunbait jaio baltz eta ez Alemania-n.

Egoera honen kontrako erreazio bat da, dudarik gabe, NPD-ren indarra. Zenbait nazi-ohi ere Alderdi hontan babestu dala berezko da. Eta ekonomiak izandako ezbeharrek beste zenbait deskontentu ta kontentagaitz erantsi dizkiola ere, zer esanik ez. Horixe gerta diteke NPD-ren arriskua.

Eskubialdeko estremista taldeak 20-tik gora dira Alemania-n. Guzti hoetako 72% lagun NPD-k biltzen ditu. NPD-k nazismo akusazioa ukatu egiten du, jakina! Alderditik kanpora bialdu ditu antisemita agertu diran guztiak, bainan nazismoa ez da antisemitismo soil. Eskandalo ta prozesoa asko izan ditu, ta danak galdu. Hala deklaratu du azkenean Von Thadden Buruzagiak ez duela sekula gehiago auzirik jarriko egunkarien kontra, justiziarik ez dagon artean.

Herriarteko politikari buruz bi ezaugarri ditu orain arte: Alemania-n iritzi jenerala zanaren kontra, arabeen alde ta israeldarren aurka agertu zan; eta Alemania-ren batasuna aldarrikatzen dute sosegurik gabe ta egoerak errezten dien pathos tragikoenarekin. NPD kapitalismoaren kontra dago ta komunismoaren kontra, zer esanik ez. Bion arteko sintesi ta gaineratze omen da beren programa. Herrialde federalesko Parlamentoetan, nazi ohien kontrako legeak borratzekotan doaz

beren ahalegin guztiak, bainan proposamentua bozeman dan guztietan galdu dute.

Herribarneko politikaren beste zenbait puntu alde batera utziko ditugu.

NPD-ren kolkobarnea ezagutzeko, lehenik ango jendeari begiratu beharko litzaioke. Ze, politika edozein joeratan egin ahal izateko arrazoiak ez dira inoiz falta. **Das Manifest der NPD** edo oinarri agirieri begiraturik, berriz, ez da ezer berezirik agiri. Jeneralidade asko, sententzia borobil gehiegi (Alemania alemanentzat — gaurko denporari gaurko politika, etabar), ta gíar gutxi.

Europear porrokatu agertzen da NPD. Bainan Europa-ren batasunik irixtekotan, Alemania batu behar da aurrenik: lehenengo Alemania, gero Europa. Modari jarraituz, amerikanoak zigortzen dira: Europa ez da libre, ta batez ere Alemania-rekin kolonial politika itsusiena egiten ari da. Eta komunismoa: indarkeriaren amenazoa mugetan dauka. Herriarteko politikan autonomia eskatzen dute Alemania'rentzat, eta herribarnekoan ez komunismorik eta ez kapitalismorik. «Gaurko gizarte jakintzarentzat gauza garbia da antxinako klase burruken ipuinak iraganak dirala»... Marxismoa «pipiak jotako ta autsak betetako ideologia» joan dan gizaldikoa da. Europa Alkartuan ez da Errusiarik sartuko, ze Estadu hau Europa bezain Asia baita.

Sindikatoak onartzen dira. Bainan sindikatoak ez dute ezertarako politikan zer sarturik.

Aberriaz mintzatzen danean berotzen zaio batez ere NPD-ri oratoria. Gaurko gobernari ta politikoeak aberriari traizioa egin ta irakasten dute. Zorigaizto guztien kulpia Alemania-rena bakarrik dala sartu nahi diote buruan herriari. Hitler-en aurretiko aleman kondaira guztia honen preparazio bezala irakasten da eskoletan, etc. «Fuera hainbeste gezurrekin ta kuku enbuste horiekin egiten diguten millarden txantajea!».

(Momentu hontantxe, kronika hau idazten ari naizela, NPD-ko laun bat ondoratu zait, eta Alemania herri libre ta sendo bat egin dezakean bakarria NPD dala progatzen alegindu da. Alemania-ri egiten zaizkion injustizia saila xehatzen du. Azkeneko gerrarekin txantaje bat egiten ari omen zaio Alemania-ri. Morgenthau planaz mintzatu zait ere —Cisneros-ek nafarrekin euki zuen asmoaren antzeko plana da hau—. Whiskey bat eran dugu ta joan da).

## KRONIKAK

Gerrakoan egindako kalteengatik ez xentimo bat gehiago inori pagatzeko, eskatzen du NPD-k. OTAN-go truppen erretiratzea ta armada aleman indartsu baten eraketa. NPD-k pakea nahi du, bainan libertadean, ez bildurrean eta batez ere, pakea nahi duten erabakimentu berdin zindoz esijitzen dute «indarbidez lapurtutako lurraldeen» itzulpena. Oder-Neisse muga ez da Alemania-rena, injustiziarena baizik.

Nazismo jatorrenaren garaietan bezalaxe kondenatzen dira Kafka, Brecht, Chagall, etc. Bert Bhecht gaurko gobernarien politikaren sinbolizat estimatzen dute.

Ikusten denez, filosofija ez berri ta ez zaharrik agiri digu NPD-k Nazismo ote dan? Gaurkoz ez, ez da ezer. Gehienez ere nazismo nahia. Bainan hori, seguru asko, bai. Egia da berekasa il ta itzali ditekeala, ta bide hori daramala dirudi, bainan nola gerta ditekean denporarekin indartzea ere, kontutan hartzekoa izango da. Horrelaxe hasi baitzan Hitler ere behinola. Horrek larritu du mundua, hain zuzen, eta ezin uka larritzeko jain ba danik. Horrek larritu ditu, inor baino gehiago, alemanak berak. Gaurkoz deskontentua aprobetxatzen eta mantentzen du NPD-k, hoek baititu oinarri. Eta hortantxe datza Hitler-en hasiera garaiekin paralelorik bildurgarriena. Herriarteko politikak, segun hau nolakoa izan, erabaki dezake einerik handienez NPD-ren politika, nik uste.

Agian Wastington-en eta Mozku-n jantziak urratu ez dan beste zerbait egitea bidezkoagoa izango litzake: aspaldion pakea firma dezaten eta egoera normal batean utz dezaten zai dago Alemania. Hainbeste presio politiko ta ekonomiko suportatzen. Hainbeste limitazio ta kontrol sofritzen. Deskontentuenak sortu zuen Hitler, eta beronek sortu du NPD-zati on batean. Bainan deskontentuenaren kausanteak eskandalizatu egiten dira Alemanian 28.000 NPD-ko lagun badaude. Birtartean, ordea, Niedersachsen Herrialde federalean bakarrik 8.000 nazitik gora izan dira gerra ezkeren prozesatuak eta judizioak ez dira kastatzen. Eta hain zuzen hementxe dago NPD sendoena, hementxe dauka Buruzagitza.

Jose AZURMENDI